

AXUN AIERBE GOGOAN

(1968-2008)

Liburu hau ezin has zitekeen beste era batera, irakurle. Axun Aierbe, itzultzaile, irakasle eta hizkuntzalaria lankide izan dugu jardunaldi honetan, eta baita aurrekoetan ere. EHUko Euskara Institutuak dituen helburuetako bat da espezialitateko hizkuntza eta adierazpideak aztertzea eta ikertzea. Eta horretan aritu izan da Axun Aierbe zenbait urtetan, bereziki administrazioko hizkerari begira. Zeregin horretan aztergai izan ditu azken urteetan administrazio-hizkera, esparru horretako testuen azterketa (sintaxi baliabideak, fraseologia, terminologia), administrazio arloko testu itzulien analisisa edo, oro har, itzulpen lanaren ikerketa.

EHUko Euskara Institutuak antolatu zuen jardunaldian erabili zuen gaia honako hau izan zen: “Birformulazio-estrategiak eta komunikagarritasuna administrazioko testuetan”. Baita maisuki azaldu ere, tesia laburki honako hiru ideia edo ondoriotan laburbilduz:

- Administrazioko gaztelaniazko testuetan gehien baliatzen diren birformulatzaileak azalpenezkoak eta urruntzea adierazten dutenak dira, baina oso leku urria dute bai zuzenketak sartzeko baliatzen direnek baita laburbiltzeko erabiltzen direnek ere.
- Euskaratzerakoan aldakortasun handia dago testu batetik bestera: batzuetan, itzultzaileak baliokide jakin bat edo beste bat hautatzen duelako; baina, beste batzuetan, testu berean ere ikus daiteke aldakortasuna.
- Euskarazko testuan, batzuetan birformulatzailea eransten da, jatorrizko testuan birformulatzaile espliziturik ez agertu arren; eta esaldi luzeak ulerterrazago izaten laguntzen duenez, komunikaziorako lagungarri gerta daiteke.

Ikerketaren emaitza ohiko eredura (artikulu itxurara, alegia) ekartzen ari zela iritsi zitzaien azken ordua. Gutako batzuek Axunekin egoteko aukera izan genuen Almerian izan zen AESLA elkartearen azken biltzarrean eta han eman zigun hitza lehenbailehen lana txukundu eta helaraziko zigula. Ezin, ordea. Eta besterik ezean, urtarrilean EHUko jardunaldian azalpenerako erabili zuen euskarria argitaratzea erabaki dugu, Axunen omenez, beste lan guztiekin batera. Ez adiorik, Axun, lankide eta adiskide.

Batzorde Antolatzailea
Euskara Institutua
EHU